

OINARRI ARAUTZAILEAK - OPEN DATA & ADIMEN ARTIFIZIALA ERRONKA

LEHENENGOA. – XEDEA

Oinarri hauen xedea hurrengoa da: Lantikek eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako "Open Data eta Adimen Artifiziala Erronka" izeneko jardueran interesa duten pertsonen edo taldeen parte-hartzea arautzea.

Parte-hartu ahal izateko, interesdunek (banaka edo taldeka) parte-hartzeko oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta izen-ematea behar bezala bete eta garaiz bidali behar dute, ondoren jasotako jarraibideekin bat eginda.

BIGARRENA. – PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK

Edozein jatorriko hamasei urtetik gorako pertsona guztiak parte ahal izango dute, betiere NAN/IFZ/AIZ edo pasaporteak, indarrean, edo parte-hartzailearen nortasuna eta adina egiaztatzen duen beste edozein dokumentu publiko aurkeztuta. EBko estatu kideen dokumentu publikoak legeztatzen edo apostillatik salbuetsita egongo dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko uztailaren 6ko 2016/1191 EBren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Hirugarren estatuen agiri publikoekin batera apostilla aurkeztu beharko da, 1961eko urriaren 5eko Hagako XII. Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, edo, bestela, legeztatuta egon beharko dute. Horri lotuta, antolatzaileek ekitaldietik kanpo utziko dituzte beren benetako nortasunarekin bat ez datozen datuak dituzten parte-hartzaileak edo eskatutako edozein baldintza betetzen ez dutenak.

Parte-hartzaileek banaka edo taldeka eman ahal izango dute izena.

Ezin izango da erakunde antolatzaileetako langilerik aurkeztu (Lantik eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila).

HIRUGARRENA. – ERRONKA

Honako erronka hau proposatzen da: "**Adimen artifiziala eta datu irekiak konbinatuz soluzio bat sortzeko gail zara?**"

Erronka honako erabilera-kasu hauetako bati erantzuna emango dion irtenbide bat sortzea da:

1. Bizkaiko erakargarri turistikoetako buruzko sustapen-erakundeak.

Erabil daitezkeen datasetak:

- Bizkaiko hondartzak, udalerrika
- Kultura agenda – BizkaikOA
- Bizkaiko kultur agenda
- Bizkaibus
- Bideak
- Zabalgunekak
- *Euskadiko hotelak – Open Data Euskadi*
- *Temperaturaren iragarpenak Bizkaian – Weather APIren datuak*

Eman daitezkeen Entregatzekoak: Sustapen-erakundeak idatziz, sortutako irudiak, flyerrak...

2. Turismoa bultzatzea, baliabide turistikoetako buruzko sentimenduak aztertuz.

Erabil daitezkeen datasetak:

- Bizkaiko hondartzak, udalerrika
- Kultura agenda – BizkaikOA
- Bizkaiko kultur agenda

- Bizkaibus
- Bideak
- Zabalgunek
- *Euskadiko hotelak – Open Data Euskadi*
- *Google reviews API – baliabide hau ordainpekoa da, doako geruza posiblea*

Eman daitezkeen Entregatzekoak: Baliabide turistikoak hobetzeko gomendioak dituzten testu-artxiboak, Exceleko eta PowerPointeko txostenak...

3. Turismo-jardueri eta -baliabideei buruzko turismo-gida pertsonalizatuak.

Erabil daitezkeen datasetak:

- 2024ko mareen taula
- Bizkaiko hondartzak, udalerrika
- Agenda kulturala – BizkaiKOA
- Bizkaiko kultur agenda
- Bizkaibus
- Bideak
- *Euskadiko hotelak – Open Data Euskadi*
- *Tenperaturaren iragarpenak Bizkaian – Weather APIren datuak, doako geruza duen baliabidea*

Eman daitezkeen Entregatzekoak: Chatbot, gomendio pertsonalizatuak dituen dokumentua.

4. Kultura-ekitaldien gomendio pertsonalizatua.

Erabil daitezkeen datasetak:

- Agenda kulturala - BizkaiKOA
- Bizkaiko kultur agenda

Eman daitezkeen Entregatzekoak: Chatbot, gomendio pertsonalizatuak dituen dokumentua

5. Hondakin kudeaketa optimizatzea (hondakin kudeatzeko gomendioak eta estrategiak)

Erabil daitezkeen datasetak:

- Hiri-hondakinak
- Edukiontziak udalerrika

Eman daitezkeen Entregatzekoak: gomendioak eta estrategiak dituzten Excel, PowerPoint eta Word txostenak.

LAUGARRENA. – ERRONKAREN FASEAK

Erronka honela garatuko da:

Parte hartzen duten taldeek soluzio hau entregatu beharko dute:

- Azala: taldearen izena eta kideak.
- Sarrera: Aukeratutako erabilera kasua eta soluzioaren deskribapen funtzionala.
- Erabilitako datuak: Open Data Bizkaia-ren dataset bat erabili beharko da gutxienez.

- Ondorioak: berrikuntza eta ezaugarri nabarmenak.
- Entregatzekoa(k)

Proposamenak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira.

Epaimahaiak **5 proposamen finalistek** aurre-hautaketa egingo du. Aurrez hautatutako taldeek azken ekitaldiaren aurreko astera arte izango dute soluzioaren aurkezpena egiteko.

BOSGARRENA. – IZEN-EMATEKO PROZEDURA

Eskabideak urriaren 28tik aurrera aurkeztu beharko dira, ekitaldiaren webgune ofizialean ezarritako inskripzio-formularioaren bidez. Izena eman ondoren, taldeek mezu elektronikoko bat jasoko dute hurrengo urratsei buruzko argibideekin (soluzioa bidaltzea).

SEIGARRENA. – KONPONBIDEAK AURKEZTEKO PROZEDURA

Parte hartuko duten taldeek 2024ko azaroaren 24a arte izango dute lan egin duten soluzioa entregatzeko. Entregatzeko eta aurkezteko prozedura gaituko den gordailuaren bidez egingo da.

ZAZPIGARRENA. – EPAIMAHAIKO KIDEA

- Diego David Álvarez Meaza jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernamentu Onaren eta Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko ataleko burua.
- Imanol Argüeso Epelde jauna, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren web kudeatzailea.
- Rosa M^a Río Berver andrea, Euskal Herriko Unibertsitatea irakaslea eta ikertzailea.
- Ainhoa Franco García de Cortázar andrea, Bilbao.eus-eko teknikari arduraduna, Bilboko Udaletxean.
- Ander Juarez Mugarza jauna, Mondragon Unibertsitateko I+T- Business Data Analytics taldearen koordinatzailea.
- Ainara Etxeandia Sagasti andrea, Lantik S.A. M.P enpresako Zerbitzu digitalen diseinuaren eta Dataren arloko burua.

ZORTZIGARRENA. – BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak irizpide hauetan oinarrituko da aurkeztutako konponbideak baloratzeko orduan:

- Proposatutako konponbidea hautatutako erronkara egokitzea
- Sormena eta berrikuntza
- Irtenbidearen kalitatea eta koherentzia
- Erabilitako Open Data Bizkaiko datasetak egokitzea

BEDERATZIGARRENA. – SARIAK

Bi proposamen onenek sari bana jasoko dute:

- Lehenengo saria 2.000 euro gordin izango dira.
- Bigarren saria 1.000 euro gordin izango dira.

Gainera, aurretik aipatutako saririk irabazten ez duten finalistek (3), 500 euro jasoko dituzte dedikazioa eskertzeko.

HAMARGARRENA. – EKITALDIAREN FINALAREN GARAPENA

Amaierako ekitaldian, talde finalistek soluzioen aurkezpena egingo da.

Talde finalistak aurrez aurre (Bilbon) eta online (aukeran, bertara joaterik ez badute) joan ahal izango dira. Proposamen bakoitza aurkeztu ondoren, epaimahaiak sor daitezkeen zalantzak argituko ditu.

Ekitaldiaren amaieran epaimahaiak erabakiko ditu talde irabazleak eta sariak banatuko dira.

HAMAİKAGARRENA. – XEDAPEN GEHIGARRIAK ETA BERMEAK

Epailleek uste badute ez dagoela baldintzak betetzen dituen proposamenik, erronka esleitu gabe gera daiteke. Era berean, antolakuntzak hautagai bat kanporatzeko eskubidea izango du, baldin eta indarrean dagoen araudia urratzen badu.

Parte-hartzailea izango da erronka honetan parte hartzeko bidalitako edukian txertatutako irudi edo testutik eratorritako antolakuntzak jasotzen duen edozein erreklamazioren erantzulea, eta antolatzaileei ez die kalterik egingo edozein hirugarrenengandik arrazoi horrengatik jaso dezakeen edozein erreklamazioren aurrean.

Parte-hartzaile bakoitzak emandako datuen egiazkotasuna bermatuko dio erakundeari, berme hori bete ezean jasotzen duen edozein erreklamaziori erantzunda.

Oinarri eta/edo bermeetako bat ez betetzeak, erronkako parte-hartzaile bat baztertzea eragin dezake.

Jardueran parte-hartu nahi duten pertsonen izena eman ahal izango dute webgunean behar bezala adierazitako eta argitaratutako data baino lehen.

Sarien ebazpena amaierako ekitaldian jakinaraziko da eta, era berean, ekitaldiko webgune ofizialean argitaratuko da.

HAMABIGARRENA. – ERANTZUKIZUNA

Antolakuntzak eskubidea izango du, edozein momentutan, erronkaren oinarriak interpretatzeko eta aldatzeko edota bertan behera uzteko edo baliogabetzeko ere, horretarako arrazoitutako kausarik badago. Nolanahi ere, konpromisoa hartu du parte-hartzaileei aldatutako oinarriak edo hala badagokio, erronka, osorik, bertan behera geratu dela jakinarazteko, antolakuntzaren webguneen bidez.

Antolakuntza ez da erantzule izango lehiaketaren borondatearekin zerikusirik ez duten matxurek, gainkargek, lineen erorketek edo antzeko beste edozein gertakarik lehiakideei eragin diezazkiekeen kalteen aurrean, baldin eta webguneetara konektatzea eragozten badute edo saria jasotzean edo horren ondorioz ager badaitezke.

Parte-hartzaileek konpromisoa hartuko dute ematen duten informazioa osorik egoteko, benetakoa izateko eta eguneratuta egon dadin. Hala badagokio, antolakuntzak ez du zertan informazio horren egiazkotasuna berrikusiko. Hortaz, uko egingo dio balizko akats, ez-egite edo faltsukerien ondoriozko erantzukizunari.